



# Osasuna Politika Guztietan

## BATZORDE TEKNIKOA



Txosten  
sektoriala **2019**

**Emakunde**

2021eko martxoa



*Euskadi, auzolana*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Emakunderen jarduera guztiek gizon-emakumeen arteko desberdintasunen ezabatzean aurrera egitea bilatzen dute; neurri horrek osasunaren determinatzaile nagusietako batean eragiten du, baina epe ertain-luzeko zeharkako neurriak dira, alegia, herritarren artean duten eragina ez da berehalakoa. Politika sektorialak gauzatzen dituztenek “eragiten” dute inpaktu zuzena.

4/2005 Legeak eta Berdintasunerako VII. Planak ezartzen dute gobernuko departamendu guztiak behartuta daudela euren politikek gizon-emakumeengan eragin dezaketen inpaktu diferentziala kontuan hartuta eta berdintasun helburuekin planifikatzera. Horregatik, departamendu guztiei dagokie sektore-esparru bakoitzean gizon-emakumeen arteko desberdintasuna ezabatzea eta, hortaz, pertsonen osasunean desberdintasunak ezartzen dituen determinatzaile garrantzitsu hori ezabatzen laguntzea.

Hainbat koordinazio-neurri ezartzen dira departamendu eta bestelako erakundeekin, politikak genero ikuspegitik egin daitezten: osasuna, enplegua, gizarte politikak, etxebizitza... Eta desberdintasunak antzematen eta horiek ezabatzeko neurriak ezartzen laguntzen dute.

Emakunderen lan-arlo giltzarrietako bat emakumeen aurkako indarkeriaren arloko koordinazioa da, eta, horregatik, arlo horretan jasotzen dira jarduera gehien txosten honetan.

Jarraian, Emakundek osasunaren arloan egiten dituen jarduerak zerrendatuko dira:

**Osalanekin lankidetzan aritzea**, hitzarmen baten bidez, genero-ikuspegia laneko osasunean txertatzeko jardueren bidez. Talde teknikoa behin bildu da, urteko jarduerak planifikatzeko; besteak beste, aholkularitza eta jardunaldi bateratu bat antolatu dira, **Lan osasuna genero-ikuspegia kontuan hartuta eta soldata-arrakala**, eta Norma Vázquezek **“Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako protokoloak aplikatzeko jarraibide metodologikoak”** hitzaldia eman zuen.

---

Jardunaldi hori **Lan Ikuskaritzarekin lankidetzan** ere egin zen, eta lankidetzahitzarmen bat sinatu da haiekin ere, diskriminazioak detektatzeko eta enpresetan berdintasun-politiken ezarpena indartzeko.

- Jardunaldiaren ordu-kopurua: 5.
- Parte hartu duten gizon-emakumeak: 99 emakume eta 12 gizon.

Euskaliten Kudeaketa Aurreratuaren Astearen esparruan, jardunaldi bat antolatu da “berdintasuna enpresetan: *aldaketak araudian eta erantzukizun partekatua*” gaiari buruz. Jardunaldi horretan, **Lanean genero-indarkeriaren aurka jarduteko protokoloak: gaurkotasuneko gaiak** txostena eskaini du Miren Eburne López Rubiak.

- Jardunaldiko ordu kop.: 4 h 15´.
- Parte hartu duten gizon-emakumeak: 71 emakume eta 14 gizon.

**Osasuna genero-ikuspegitik urteko jardunaldia egin da, Emakumeen Osasunaren Nazioarteko Egunean.** 2019an, hau izan da jardunaldiaren izenburua: **Los cuidados y su impacto en las desigualdades de género en salud** (Zaintzak eta horiek osasunaren inguruko genero-desberdintasunetan duten eragina), eta María del Mar García Calventek eman du.

- Jardunaldiaren ordu-kopurua: 1 h 30´.
- Parte hartu duten gizon-emakumeak: 24 emakume (gutxi gorabeherako datua da; izan ere, jardunaldi horretan deialdi zabala egiten da eta ez dugu inskripzioerik jasotzen, gainerakoekin egiten dugun bezala).

2019an **sexu jazarpenaren eta sexuagatiko protokoloen aplikazioari buruzko 43 aholkularitza** egin dira **enpresa eta erakunde pribatuentzat**.

EAEko 42 ikastetxek boluntarioki garatu dute Berdintasunerako, errespeturako eta indarkeria-ezarako **Nahiko! hezkidetzeta programa**.

- Parte hartu duten ikastetxeen kopurua: 2015/2017: 36; 2017/2019: 42; 2019/2021: 49.
- Nahasitako ikasleak: 2015/2017: 2.780; 2017/2019: 6.069; 2019/2021: 5.628=2.745 neska 2.883 mutil.
- Nahasitako irakasleak: 2017/2019: 301; 2019/2021: 574.

---

Gazteentzako **Beldur Barik programa**. Gazteen artean indarkeria sexista prebenitzeko **BELDUR BARIK kanpaina** bultzatu eta kudeatu da, horretarako foru aldundi bakoitzarekin lankidetzan hitzarmen bat sinatuta. Beldur Barik lehiaketaren 2019ko edizioan 58 udalerrik, koadrilek eta mankomunitatek parte hartu dute, eta 392 lan aurkeztu dira. Horietatik 301 onartu dira lehiaketara, eta guztira 2.294 gaztek parte hartu dute (%58 neskek, %35 mutilak eta %4 beste batzuk). Topaketa azaroaren 23an egin zen Bilbon. 84 parte-hartzaile izan ziren tailerretan, eta 210 sari-banaketan. Gainera, jai eta aisialdi-testuinguruetan eraso sexistak prebenitzeko Beldur Barik Jaiak kanpaina espezifikoan, 80 udalerrri eta kuadrilla baino gehiagok parte hartu dute, eta sortutako askotariko materiala eskatu dute.

**Gizonduz programaren esparruan, prestakuntza- eta sentsibilizazio-programarekin** jarraitu da, eta bereziki gizonei zuzendutako prestakuntza-ekintzak egin dira, osasunari buruzko edukiak biltzen dituztenak, generoak beren osasunean eta inguruan dituzten pertsonen osasunean duen eraginaz jabetu daitezela. 2019an, 1.119 lagunek hartu dute parte prestakuntza-ekintza horietan, 773 gizonek eta 307 emakumek. Gainerakoak ez binario gisa identifikatu dira edo ez dira identifikatu. Online ikastaroei dagokienez, 468 pertsonak amaitu dituzte arrakastaz, 194 gizonek, 273 emakumek eta ez-bitar gisa identifikatu den batek.

Halaber, **Gazteak Berdintasunean 2.0** proiektua garatu da nerabe eta gazteen eta, bereziki, gizonen kontzientziazioa eta inplikazioa sustatzeko, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurka, teknologia berrietan oinarritutako hezkuntza-tresna berritzaileak erabiliz. 2019an, proiektua eta horren kideak 6 ikastetxetan testatu dira: Lauro ikastola, Bilboko Lasalle ikastetxea, Badaia BHI Langraiz, Hernaniko Urumea HBI, Errenteriako Don Bosco ikastetxea eta Gasteizko ADSSIS Fundazioa. Irakasleentzako ikastaroetan 93 lagunek parte hartu dute guztira, 37 emakumek eta 56 gizonek. Gazteen aldetik 415 lagunek parte hartu dute, 67 emakumek eta 348 gizonek. Guztira 96 prestakuntza-ordu eman dira ikasleekin, 25 taldetara iritsiz, eta horietako gehienek 4 orduko dedikazioa izan dute talde bakoitzeko.

**Sexu erasoak eta etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearen arteko II. Akordioaren jarraipen Batzordea koordinatu** da. Hala, 2019ko uztailaren 5ean, Euskal Autonomia Erkidegoan etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakunde arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordeak 2019ko ohiko bilkura egin zuen Emakunderen egoitzan. Bilera horretan, Emakunderen mapa aktibo bat aurkeztu zuen, emakumeen aurkako indarkeriari aurre

---

egiteko baliabideak geolokalizatzeko. Mapa hori Emakunderen webgunean dago eskuragarri, eta biktima diren emakume eta adingabeei arreta emateko eskaintza publikoari buruzko informazioa eskaintzen du. Informazioa udalerrika, entitateka, eta baliabide bakoitzak eskaintzen duen laguntza motaren arabera dago sailkatuta: segurtasuna, informazioa eta orientazioa, arreta psikologikoa, laguntza juridikoa, laguntza ekonomikoa, bizitegi edo etxebizitza laguntza, osasun arreta, ahalduntzea eta beste.

Gainera, batzorde hori ezohiko bilera batean bildu zen 2019ko irailaren 30ean, Europako Kontseiluaren mende dagoen Genero Indarkeriari eta Etxeko Indarkeriari buruzko Adituen Taldeko (GREVIO) ordezkariak batek Euskadira egindako bisitaren harira. Bileraren helburua Istanbulgo Hitzarmenaren (Emakumeen aurkako Indarkeria eta Etxeko Indarkeria Prebenitzeko eta Borrokatzeko Europako Kontseiluaren Hitzarmena) helburua izan zen Estatuko Txostenari ezarpenari buruz emandako informazioa osatzea.

II. Akordioaren Jarraipen Batzorde horren esparruan, **Erakunde arteko Talde Teknikoa (ETT)** bultzatu, dinamizatu eta koordinatu da, eta bi bilera egin ditu 2019an.

Maiatzaren 28an bilera bat egin zen, eta Emakundek behin betiko gida aurkeztu zuen, EDEKArekin batera egindakoa. Azken horrek Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak ordezkatzeko dituen desgaitasunaren arloan. Gida hori dokumentu praktikoa eta arina da, eta dibertsitate funtzionala duten biktimei lehen harrera egiteko moduari buruzko gomendioak jasotzen ditu. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta ematen dieten profesionalei zuzenduta dago. Bestalde, Emakundek zenbait gai azaldu zituen (aurrekariak, erronken identifikazioa, kronograma eta helburua, besteak beste) "Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldatetaren lege-aurreproiektuaren" zirriborroan egindako aurrerapenei buruz. Azkenik, aurkezpena egin ondoren, emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko Legearen VII. kapituluari buruzko eztabaida egin zen, Erakunde arteko II. Akordioaren Erakunde arteko Talde Teknikoaren ekarpenak biltzen hasteko.

Aurrerago, ekainaren 25ean, ETTaren bigarren bilera egin zen. Bertan, ordura arte jasotako ekarpenak eztabaidatu ziren, eta "Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldatetaren lege-aurreproiektuaren" zirriborroaren edukiari buruzko ekarpen berriak jaso ziren.

Gainera, 2019an, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordearen esparruan, **Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko sail**

---

**arteko batzorde bat** eratu zen, Emakundek bultzatuta, eta 2019ko irailaren 25ean bildu zen. Bilera horrek bi helburu nagusi izan zituen; batetik, “Eusko Jaurlaritzak emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean emandako erantzuna. Datuak 2018” dokumentua onartzea, eta, bestetik, Europako Kontseiluaren mende dagoen GREVIO Genero Indarkeriari eta Etxeko Indarkeriari buruzko Adituen Taldearen ebaluazio-bisita prestatzea.

Helburu horiekin bildu zen, halaber, **Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko Sail arteko Talde Teknikoa**, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko Sail arteko Batzordearen mendekoa. Gainera, Sail arteko Talde Teknikoak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana Estatuko Itunarekin, Istanbulgo Hitzarmenarekin eta Euskadi Basque Country Agendarekin lerrokatzeko lan bat egin du 2019ko urriaren 1etik abenduaren 30era arte. Taldea bitan bildu da osoko bilkuran, eta talde txikiagoetan beste 4 saiotan. Lan-prozesu horren ondorioz, egoera-egoerari buruzko txosten bat egin da, tresna juridiko horiek batera ezartzeko dokumentu operatibo bat duena.

**Informazio Sistemen Taldearen-IST** esparruan, (datu horiek indarkeriarik gabe bizitzeko laguntza eskatzen duten emakumeen informazioa ematen dute, Euskadin indarkeria jasaten duten emakumeekiko arretaren nondik norakoak jakiteko), II. Akordioaren barruan, datuak bildu eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko hainbat azterketa-dokumentu egin dira. 2019an, **lau txosten argitaratu dira Emakunderen web orrian:**

- EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoak: analisia eta interpretazioa. Datu estatistikoak 2018”, batez ere Segurtasun Sailak emandako datuei buruz.
- Biktima diren emakumeen arretari buruzko datu-bilketaren azterketa-txostena: “EAEn emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean eman den erantzuna. 2018ko datuak”. 2019an, adierazle berriak sartu dira aplikazioan: indarkeriaren arloko aurrekontua eta gastua, emakume biktimei arreta ematen dieten profesionalen kopurua, langileen prestakuntza eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prebentzio eta sentsibilizazio-kanpainak. Baliabide propioen kalitateari buruzko datuetara hurbiltzeko lehen ahalegin horri esker, GREVIOren esparruan sortutako gaiei erantzun ahal izan zaie, bai eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldatetako ekarriko duen inbertsio-gehikuntza baloratu ere.
- “Eusko Jaurlaritzak EAEn ematen duen erantzuna, emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean. 2018”.
- “Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek EAEn ematen duten erantzuna, emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean. 2018”.

---

**Indarkeriari buruzko informazioa eta prestakuntza emateko eta horren inguruan sentsibilizatzeko eta indarkeria prebenitzeko ekimenak sustatzen dituzten erakundeentzako diru-laguntzen deialdia kudeatu da.** 88 eskaera aurkeztu dira, eta 42 proiekturi eman zaie diru-laguntza. Proiektu horietara 240.000 euro bideratu dira.

**Hainbat jardunaldi egin dira edo hainbat jardunalditan aktiboki parte hartu da emakumeen aurkako indarkeriaren garrantzia, kausak, ondorioak eta horri heltzeko moduak ezagutarazteko:**

- **“Erronkak, indarkeria matxistaren biktimei diren eta desgaitasuna duten emakumeenganako arretan”** jardunaldia egin zen Bilbon, ekainaren 14an, eta Edeka osatzen duten erakundeetako ordezkariak parte hartu zuten, hau da, desgaitasunen bat duten pertsonak ordezkatzeko dituzten erakundeak eta gure erkidegoan gor-itsuak diren pertsonak biltzen dituen euskal koordinakundeko ordezkariak. Guztira, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko sistemako hainbat esku-hartze eremutako 255 profesionalak parte hartu zuten. CERMI Mujeres Fundazioko presidenteorde exekutiboa eta Emakumearen aurkako Diskriminazioa Desagerrarazteko Nazio Batuen Batzordeko kidea den Ana Peláez Narváezena izan zen txosten nagusia. Gainera, mahai inguru bat dinamizatu zen Edekako 8 lagunekin. Lehendakariak eman zion amaiera jardunaldiari, eta, horrez gain, **“Indarkeria matxistaren biktimei diren eta desgaitasuna duten emakume eta neskek. Esku hartzeko jarraibideak”** gida aurkeztu zen, Emakundek Edekarekin lankidetzan egindakoa.
- **Desgaitasunari eta indarkeria matxistari buruzko prestakuntza-saio bat egin da Durangoko Mankomunitatearentzat.** Saio horretan, *etxean tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten eta indarkeria matxistaren biktimei artatzen dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearen arteko II. Akordio*ko eremu guztietako profesionalak parte hartu zuten. Bilkura hori irailaren 27an egin zen, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Durangoko Koordinazio Protokoloaren esparruan.
- 2019ko urriaren 3an, Osakidetzak Bilbon antolatutako Euskal Autonomia Erkidegoko Zainketen I. Jardunaldi Multiprofesionalaren esparruan, Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Arloko Emakundeko arduradunak talde ahulei eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko hitzaldi bat irakurri zuen.
- Abenduaren 13an Gasteizen egindako “Begiratu orainari, sortu etorkizuna” izeneko jardunaldian parte hartu da. Osasun Sailak bultzatu zuen jardunaldi hori, eta Emakundek **“Desgaitasun egoeran dauden emakumeak, ikusezinak eta ezikusiak izan daitezkeenak”** izeneko txostena aurkeztu zuen.

---

**JABETUZ prestakuntza programaren 3 edizio** egin dira, **berdintasunaren, indarkeriaren antzemate goiztiarraren eta indarkeriaren arretaren arloan**, indarkeriaren biktima izan diren emakumeen arretan nahasita dauden hainbat profesional-talderentzat (osasuna, gizarte lana, ertzaintza, enplegua, abokatutza, epailetza...). Guztira 266 pertsonak jaso dute prestakuntza, 233 emakumek eta 33 gizonek.

Halaber, **Emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeko Deustuko Unibertsitatearen unibertsitate-master ofiziala** garatzen lagundu da 2019-2020 ikasturtean. Horretarako, 14 beka eman zaizkie bertako ikasleei, 26.244 euro guztira. Gainera, Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko Emakunderen arloak parte hartu zuen, eta 4 orduko prestakuntza-saio bat eman zuen 2019ko urriaren 3an.

**Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta emateko nazioarteko kalitate-estandarrei buruzko NBEaren programaren** esparruan, jardunaldi bat egin da 2019ko urtarrilaren 9an. 2017ko eta 2018ko ekitaldietan hainbat jardueraremutan garatutako prozesua ixteko jardunaldia izan zen, eta prozesuan zehar identifikatu diren ondorioak eta erronkak aurkeztu ziren. Jardunaldia Lehendakaritzan egin zen, eta bertan izan ziren lehendakaria eta UNFPA eta NBE-Emakumeak erakundeetako bi ordezkari, hurrenez hurren, prozesuan parte hartu zuten 83 pertsonarekin batera. Jardunaldi horrekin amaitutzat eman da Euskadik Programa Bateratu Globalean izango duen parte-hartzearen bigarren fasea. Era berean, abenduaren 10ean eta 11n Istanbulen egindako lan-tailerrean parte hartu dugu, Programa Bateratu Globalaren hirugarren fasea prestatzeko.

Programa garatzen laguntzeko, diru-laguntza nominatibo bat eman zaio Nazio Batuetarako Biztanleria Funtzari, hau da, NBE-Emakumeak erakundearekin batera proiektu honen buru den erakundeari, 9.000 eurokoa.

Bestalde, irailaren 9tik 11ra bitartean, Istanbulen antolatutako bileran eta prestakuntza-saioetan parte hartu du Emakundek, Nazio Batuen Erakundearen **“We Decide”** (guk erabakitzen dugu) urte anitzeko programaren esparruan. Programa horrek indarkeriarik gabeko bizitza izateko eskubidea jorratzen du eta desgaitasuna duten emakume eta gazteentzako sexu eta ugalketa-eskubideen gozamina sustatzen du. UNFPA (Nazio Batuen Biztanleria Funtza) da programa horren buru, eta, besteak beste, Emakunderen finantzaketa du, 15.000 eurokoa. Programak desgaitasuna duten pertsonen giza eskubideak eta gizarteratzea sustatzea du helburu, eta emakumeek, nerabeek eta gazteek beren osasun, sexu eta ugalketa-aukerei buruzko erabakiak hartzeko ahalmena dutela ziurtatzera bideratu da.



---

Emakunderen txosten-bildumaren barruan, Izaskun Porres Garcíaek Emakunderentzat egindako **“Genero-indarkeriako delituen biktimen intimitaterako eskubidea. Biktimen anonimotasunerako eskubidea”** txostena, 41 zk. duena, **argitaratu eta banatu** zaie eragile klabeei. Halaber, posta elektronikoz zabaldu da argitalpenaren pdf bertsioa.

Bertha Gaztelumendik zuzendutako **“Volar”** dokumentala aurkeztu zuten 2017an Zinemaldian, **indarkeriari biziraun dioten emakumeen erreparazioarako proiektua**. Emakunde herritarrei eta elkarteei eskaini die filma, biztanleria sentsibilizatzen jarrai dezaten. Dokumentaleko emakume protagonistekiko harremana ahalbidetu da udal eta elkarte artean, proiektzioen ondoren emakume horiek foro-etzabaidetan egoteko, euren esperientzien inguruko gogoeta egiteko eta herritarrak aldaketa sozialerako sentsibilizatzen saiatzeko. 2019an, EAEko eta Espainiako Estatuko hainbat herritan proiektatzen jarraitu da. Filmaren 242 eskaera jaso dira. Askotan, proiektio bat baino gehiago dakartzate eskaerek.

**Emakumeen eta nesken sexu-esplotazioarako erabilera.** 50.000 euroko diru-laguntza nominatiboa izapidetu eta kudeatu zaio Askabide erakundeari, ostatu duina eta segurua emateko eta sexu-esplotazioa bideratutako giza salerosketaren biktima diren emakumeei arreta integrala emateko. Gainera, Oblaten Kongregazioa erakundearentzako diru-laguntza nominatiboa izapidetu eta kudeatu da, “Ireki Leihoak” proiektua garatzeko. Proiektuaren helburua prostituzioaren errealitatea sistematikoki behatzea da, sexu-esplotazioa bideratutako gizakien salerosketaren biktima diren emakumeak detektatu, identifikatu eta haiei arreta emateko. Guztira 20.000 euro izan dira.

Gainera, **osoko bi bilera egin ditu sexu-esplotazioarako emakumeen eta neskatoen salerosketaren aurkako mahaiak**. Emakunde bultzatu eta koordinatzen ditu, eta honako hauek parte hartzen dute: Segurtasun Sailak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saileko Justizia Zuzendaritzak, Justizia Auzitegi Nagusiko Fiskaltza Nagusiak, hiru foru aldundietako adingabeen zerbitzuek, Gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoan duen Ordezkaritzako ordezkariak, Segurtasun Indar eta Kidegoek, eta hamaika GKEk, besteak beste, Caritasek, CEAR Euskadik, Munduko Medikuek, Hiesaren Aurkako Batzordeak, Gurutze Gorriak, Gizarterakok, Askabidek, Oblatek eta Accem-ek.

2019ko ekainaren 10ean egin zen lehen osoko bilkura, eta Carmen Meneses doktoreak Emakunderentzat Comillaseko Unibertsitatearen eta Deustuko Unibertsitateko ikerketa-talde baten laguntzarekin egindako **“La trata de mujeres y niñas con objeto de explotación sexual en Euskadi”** (Emakumeen eta nesken sexurako esplotazioa Euskadin) **azterlan-diagnostikoa** aurkeztu zuen.

---

2019ko abenduaren 13an, **bigarren osoko bilkura** egin zuen Sexu-esplotazioa helburu duen emakume eta nesken salerosketaren aurkako EAeko mahaiak. Mahai horren burua Izaskun Landaida Emakundeko zuzendaria izan zen, eta **2020rako lan-plana** adostu zen. Lan-plan horretan prestakuntzan sakontzea, lantaldeak sortzea, informazio eta prestakuntza-materialak sortzea, adierazle komunen multzo bat diseinatzea eta egoitza eta anbulatorio-baliabideak ekonomikoki babesten jarraitzea azpimarratzen dira, besteak beste.

Gainera, salerosketaren aurkako mahaiaren 2019ko ekintza-planaren barruan, prestakuntza-jardunaldi bat antolatu zuen Emakundek, abenduaren 16an, Eusko Jaurlaritzaren Gasteizko egoitzan, **“Euskadin salerosketa-egoeran dauden emakumeen nazioarteko babesaren arloko erronkak”** izenburupean, mahaia osatzen duten erakunde guztiei zuzenduta, eta beste erakunde interesdun batzuei ere egin zitzaien parte hartzeko gonbita, txosten teorikoak aurkezteko jardunaldi zatian. Ondorengo txostengile hauek parte hartu zuten: Patricia Barcena Garcíak, CEAR-Euskadi elkarteko zuzendariak (Errefuxiatuei Laguntzeko Batzordea); Ane Garay Zarragak, CEARen *“Retos en el avance hacia una efectiva protección de las mujeres y niñas en situación de trata en Euskadi desde un enfoque de protección internacional”* (Euskadin salerosketa-egoeran dauden emakume eta neskatoak nazioarteko babesaren ikuspegitik benetan babesteko aurrerapenaren erronkak) txostenaren egilekideak, eta Carlos Arévalo Villarrek, sexu-esplotazioa helburu duen salerosketaren biktimei arreta emateko Afrodita Programako eta Mestura GKEko koordinatzaile eta abokatuak, bai eta sexu-salerosketaren aurkako Galiziako sareko bozeramaileak ere. Jardunaldiaren azken zatia, lan-tailer formatukoa, Salerosketaren aurkako Mahaia osatzen duten pertsonen mugatu zitzaien, eta taldeka lan egin zuten bi kasu praktikoren inguruan, ondoren eztabaidatu eta nazioarteko babeserako tresnen inguruan ondorioak ateratzeko.

Emakundek **lehen harrerako egoitza-baliabide bat** jarri du abian **sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimentzat eta haien seme-alabentzat**, titulartasun publikokoa, larrialdiko arretarako. Sei lagunentzako edukiera du etxebizitzak, bai eta biktimei ostatu emateko beharrezkoak diren ekipamendu guztiak ere, eta biktimen babesa ziurtatzeko, Ertzaintzak proposatutako segurtasun-neurri guztiez hornituta dago; horrekin batera, biktimak erreperatu eta leheneratzeko arreta-programa integral bat ere badago.

**Genero-indarkeriako egoerak egiaztatzeko prozedura.**- 2019an, genero-indarkeriako egoerak egiaztatzeko judizioz kanpoko prozeduraren (gaikuntza-titulua) inguruko hausnarketa-prozesu bat hasi da, Emakunde buru dela, inplikaturako hainbat erakunderen laguntzarekin (Udaleko gizarte zerbitzuak, Eudel, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza, Lanbide eta Emakunde), prozedura

---

estandarizatu bat adosteko konpondu beharreko zailtasunak eta gai praktikoak mahai gainean jartzeko. Hori guztia genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna garatzeko premiazko neurriei buruzko 2018ko abuztuaren 8ko Errege Lege Dekretuaren ondorio da; izan ere, biktima-izaera egiaztatzeko gaitutako erakundeak zabaltzen ditu, eskubide soziolaboralen, Gizarte Segurantzaren eta gizarteratzeko eta laneratzeko programen esparruan, eta baliozkotasuna ematen die gizarte zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen eta harrera-zerbitzuen txostenei.

Bi parte-hartze saio egin ziren 2019ko ekainaren 28an eta 2019ko urriaren 9an, eta, ondoren, amaitutzat eman da, azaroan, hausnarketa-prozesu horren lehen urratsa. Udaleko gizarte zerbitzuek parte hartu dute prozesu horretan, eta haien proposamenak genero-indarkeriako egoerak egiaztatzeari buruzko ondorioen txostenean jaso dira. 2020an Emakunde buru dela garatuko den prozesuaren bigarren zatian kontrastatzea geratzen da, eta foru aldundietako Gizarte Politiketako sailen parte-hartzea izango du.

## **2020RAKO AURREIKUSITAKO EKINTZAK:**

- Sexu jazarpenaren aurkako eta sexuagatiko protokoloa eguneratzea eta enpresa zein sindikatu elkarten artean zabaltzea.
- Sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzko online prestakuntza-modulu bat garatzea, enpresetako aholkularitza konfidentzialei zuzenduta.
- Lehendakariak 2018an aurkeztutako *Gizonok esan eta egin* kanpaina indartzea, EAEko gizonak beste urrats bat egin dezaten eta konpromisoa har dezaten beren eguneroko bizitzan berdintasunaren aldeko hainbat ekintza zehatz egiteko, erantzunkidetasunaren eta zaintzaren arloan, besteak beste, bai eta indarkeria matxista desagerrarazteko, berdintasunaren aldeko ideiak zabaltzeko edo mezu eta portaera sexistak salatzeke ere. Kanpainaren oinarria aplikazio informatiko bat da, eta, urrats gutxi batzuetan, euren sexismoa autoebaluatzeke test bat egiteko aukera ematen die gizonaiei, bai eta konpromiso sorta zabal eta ireki baten artean aukeratzeko ere. Horretarako, baliabideak eta jarraipen-sistema bat eskaintzen ditu aplikazioak berak.

- 
- EAEko mahai soziala bultzatzea, NMGren jarduera-planaren esparruan. ETENGABEKO JARDUERA.
  - Sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen eta neskatuen salerosketaren aurkako Euskadiko mahaiaren esparruan, aurreko ekitaldian egindako azterketa diagnostikoaren gomendioetatik eratorritako jarduera-plana abian jartzea. Horien artean, Osasun Saila mahaiko kide gisa sartzea.
  - Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta emateko protokoloen egoeraren diagnostikoa eta eguneratzea egitea, Erakunde arteko II. Akordioa sinatu zenetik izan diren araudi, programa eta testuinguru-aldaketetara egokitzeko.